



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

592. zkia.

XIV. urtea

2006ko azaroaren 17a



Igor Elizburu

«Behobia-Donostia lasterketa
berezia eta gogorra da»



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

Askotan hitz egiten dugu gazteon arazoari buruz, Txino. Etxebizitza, lan prekarioak, bizi-molde alternatiboak... Baina gaur nahiago dut zahartzaroari buruz hitz egin. Bizitza areazko erloju bat bada, ordulariaren tarte estutik pasatzen diren azken hondar-aleei begiratu nahi diet.

Gaur egungo bizi-eredua ez baitago zahartzaroari aurre egiteko egina. Eta ez naiz geure zahartzaroaz ari, ingurukoenaz, baizik. Nire kasuan aiton-amonak dira zahartu direnak; beste batzuen kasuan gurasoak izango dira. Gero eta gizarte individualistagoan bizi gara, nor bere lanetan murgilduta, presa-ka. Eta oztopoek traba egiten digute. Ez dugu gure erritmoa aldatu nahi. Libre izatera ohitu gara. Libreegi? Gizarte kolektibistetan zaharrei izugarizko errespetua diete, garrantzitsuak dira adinak burua urdindu dien pertsonak. Helburua ekoiztea duen gizarte honetan, ordea, ekoizpenaren erritmorako oztopo bilakatu dira zaharrak. Izan gaitezen zintzoak eta onar dezagun: traba egiten digute. Horrela, gordin-gordin.

Goraino beteta daude zahar etxeak, adinduei lo egiteko pilulak ematen zaizkie isilik eta geldi egon daitezen, anai-arreben artean liskarra baino ez du sortzen ama edo aita zahararen kargu egin beharrak. Lehengo batean bere alaba propioa ukatzen zuen amaren gordinkeria salatu zenuen. Eta zer esan behar dugu bere ama propioa ukatzen duen alabaz?

«Zaharrek traba egiten digute. Horrela, gordin-gordin»

UXUE

«Ezina da zahartzaroa beltzez janzten duena»

IMANOL

Ogi gogorra laga didazu mahai gainean, Uxue. «Ogi gogorari, hagin zorrotza», dio esaera zaharrak. Saiatuko gara. Gure amamak esaten zuen moduan, urteak bete nahi ditugu, baina ez dugu zahartu nahi. Badakigulako zahartzaroari eskutik helduta ezina etortzen dela gehienetan. Eta, nire ustez, ezina da zahartzaroa beltzez janzten duena. Izan ere, bakarrik moldatzeko gauza garen bitartean ez dugu *trabarik* egiten.

Gainera, ezinarekin batera zahartzaroa haurtzaroaren traza hartzen hasten da. Zaharrak *umetu* egiten dira eta bizitzaren zikloa ixten hasten da poliki-poliki. Horregatik egiten dituzte Mendaron zabaldu berri duten Eguneko Zentroa bezalako *haurtzaindegia*k. Zaharrak, umeak bezala, ezin ditugulako bakarrik laga. Eta hain zaharrak ez garenok beste gauza batzuk dauzkagulako egiteko. Ez daukagulako *astirik* gure zaharrekin egoteko, eta haien denbora *okupatu* behar dugu gurea *libratzeko*.

Hirugarren adina deitzen diogu zahartzaroari, kategoria gutxiagoko adina dela onartzen moduan (*hirugarren munduarekin* egiten dugun antzera). Baina ez gara ohar-tzen gaur gazteak izan arren, bihar zaharrak izango garela. Behar bada, orduan konturatuko gara bizitzako azken urteak ezin ditugula hirugarren adinera bajatu. Hain zuzen ere, azkenak direlako zaindu eta aprobetxatu behar ditugula inoiz baino ilusio gehiagorekin.



ZERGATIK ARDURATU BEHAR NINTZATEKE ETORKIZUNEN BELAUNALDIEZ?
NIGATIK EZER EGIN AL DUTE, AKASO?



Groucho Marx

Orain da garia AHT gelditzeko!

AHT GELDITU! Elkarlanak salaketa larria egiten du "Euskal Y"aren lanak hasi dituztelako, eta gertakizun larri honen aurrean, gizarte osoari dei egiten dio kalte ekologiko eta sozial larriak eragingo litzuzkeen proiektu txikitzaile hori berehala geldiaraz dezaten exijitzeko egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Herriaren erantzunak indartsua izan behar du: AHT Euskal Herrian egitasmerik gaitzetsi eta kritikatuena da, eta obrak hastea onartezina da.

Gainera, Jaurkitzak eta Espainiako Gobernuak ezarri duten erabateko ilunkeria salatzen dugu, Sustapen Ministerioak AHTren erakuntza lan horiek inolako informaziorik eman gabe eta Eibar-Gasteiz autopistarentzat desjabetutako lurretan hasi baititu, Arabako Luku herrixkaren ondoan.

Orain da garaia indarrez erantzuteko eta herriz-herri eta eskualdez-eskualde AHTren aurkako mobilizazioak zabalteko eta sendotzeko. Obrak gelditzeko ez da berandu eta AHTren inposaketari Urbinan, Gasteizko 20 kontzejutan eta laister Itsasondon ere egingo den herri galdeketekek duten zilegitasuna kontrajarri behar diogu. Halaber, AHTren kontrako oposizioa etorkizunari begira egindako apostu bat bezala dakusagu, herriari bere erabaki propioak hartzeko ahalmena

emateko eta erakundeetatik ezartzen ari den garraio eta gizarte eredu suntsitzaileria eztabaidagai jarri eta eraldaketa sakon bati ekiteko.

Horregatik guztiagatik, AHT GELDITU! Elkarlanean biltzen garen hainbat gizarte mugimendu eta erakundek datozen egunetan AHTren obren hastapenari ahalik eta erantzun zabalena emateko antolatuta diren mobilizazioetan parte hartzeko dei egiten dugu: azaroak 18 larunbata, Euskal Herri osoko manifestazioa Gasteizen, 17:00etan "Iparralde" Gizarte Etxetik.

E. G. A.

Irakurle guztiei

Infotur inbiliararen izenean egun hauetan herritarren ahotan dagoen gai bat argitzeko asmoz idazten dugu eskutitz hau. Guk Residencial Geminiseko etxeen salmenta gestionatzen dugu, baina merkatu librekoak bakarrik. Badakigu hauen aurrean Babes Ofizialeko beste bloke bat egingo dela, baina horien adjukazio eta gestioa ez da gure ardurara. Babes Ofizialeko etxe horien gestioa badakigu kooperatiba baten esku dagoela, baina gurekin ez dauka inongo kontakturik. Besterik gabe gauzak argi utzi ditugulakoan...

INFOLUR INMOBILIARIA

Indarkeria sexistaren kontra indarrak biltzen

Egunkariak ireki, telebista piztu eta zorritzarrez egunero aurki ditzakegu eraso sexistak: bortxaketak, tratu txarrak, irainak, hilketak, diskriminazioak... eta zorritzarrez, oso ohituak gaude hauek entzuterara.

Indarkeria sexista, sexismoaren muturreko adierazpena da, sistema patriarkatuaren 2. mailako subjektuak garenaren adierazpena. Neska eta mutilen jendarteratze desberdinek sortzen duten botere harremenen sistemaren adierazle. Aski da! Indarkeria sexistak, sistema politiko demokratikoaren zilegitasuna zalantzan jartzen du. Indarkeria sexistak ez du justifikazio psikologiko ezta erlijiosorik. Ezin dugu onartu eraso bat gehiago! Horregatik beharrezkoa da emakumeek antolatu eta herritar orok honen aurrean jarrera aktiboa izatea. Hau dela-eta, azaroak 25, indarkeriaren kontrako egunerako, herriko hainbat eragilek (Haizea Emakume Taldeak, Biluzik sexologia zerbitzuak eta Gazte Asanbladak) hainbat ekimen antolatu ditugu. Batetik, egun guztiko autodefentsa tailerra egingo dugu eta Elgoibarko emakume oro animatzen dugu parte hartzera. Tailer honetan, fisikoki zein psikologikoki landuko dugu gure burua eta Elgoibarko emakumeentzako bilgune polita izan daitekeela uste dugu. Bestalde, larunbat goizean Plazan informazio mahaia jarriko dugu eta 13:30ean kontzentrazioa egingo da "indarkeria sexista gehiago ez" lemapean. Animatu eta etorri! denon inplikazioa garrantzitsua da!

HAIZEA E. T., BILUZIK ETA GAZTE ASANBLADA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ERAGILEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga
PUBUZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILA** Jaione Unanue
KOLABORATZAILAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulaizia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Uruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855

KEXAK

• Madalako parkeko barandila oso egoera txarrean dago: "Arratsaldetan guraso eta ume mordoak biltzen gara Madalako parkean. Barandilatik ahateak ikustea gustatzen zaie umei. Azkenaldian, ordea, barandila oso egoera txarrean dago, leku bazueta apurtuta, baina batez ere, oso zikina. Amaraunez beteta egoten da eta umeek zikin-zikin ginda amaizten dute."




• Jendeak perretxiko gehiegi hartzen ditu: "Nafarroako Ultzama bailaran aterata dago argazki hau. Jendeak ez du, ordea, errespetatzen. Gure inguruko mendietan oterra gainezka eramaten duen jende asko ibiltzen da. Ez legoke gaizki hemen ere, hone-lako kartelen bat jartzea. Errespeteta dezagun natura!"



TXALOAK

• Eskerrik asko Galiza Kultur Etxeari Magosto eguna antolatze-agatik: "Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, giro bikaina izan zen Magosto Egunean. Gaztainak oso onak zeuden eta ardoa, bikaina. Jende mordoak gerturatu zen, eta oso ondo pasatu genuen. Festa honek asko irabazi du kalean antolatzen hasi zenetik. Tradizio polita da, eta urte askoan mantentzea gustatuko litzaziguke. Segi horrela!"



Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN *Luma*

Urtebetetzea

Gizona tabernako barran dago begien aurrean daukan edalontziari begira. Bere urtebetetze eguna du, baina beretzat ez dago kandeladun tartarik. Vodka laranja-zko edarian izotza desagertzen ikusten duelarik, ordura arte zer egin duen galdetu dio bere buruari. Hausnarketa sakonaren ostean, balantze gazi-gozoa atera zaio. Bizitza zurrut luzetan dastatzen saiatu da baina noizbehinka eztarrian trabatu zaizkion trago latzak hartu ditu. Edari konbinatuari beste zurrutada bat jo ondoren, ondorio batera iritsi da: bizitza, bizkarrean motxila hartuta egin beharreko bidea da. Baina, zenbaitetan, motxilaren zama handiegia da eta kosta egiten da eraman ahal izatea. Zoriak lagundu dezake, baina zoria aurpegi biko amorantea da. Aldekoa denean, zoragarria da. Aldiz, aurkakoa bada, maltzurra da benetan.

Jon Eugi

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ESTITXU URIBEETXEARRIA

AMALURRA
FISIOTERAPIA

• **Zergatik Amalurra?**
Gure filosofiarekin bat dato-
rrelako.

• **Zertarako erabiltzen da fisioterapia?**
Gorputzeko desorekak bideratzeko: edozein min, molesti edo pilaturiko tentsioari aurre egin eta gorputzaren oreka lortzeko.

• **Gorputzeko zein arazo tratatzen dira gehien?**
Bizkarrekoak.

• **Zein masaje mota eskaintzen dituzue?**
Bezero bakoitzaren beharrak kontutan hartuta desberdinak. Baina, medizina globalean zentratzen gara.

• **Gorputzeko posturak zaintzeaz gain, zer eduki behar dugu kontuan?**

Eguneroko bizitzan pilaturiko tentsioaz askatzea oso garrantzitsua da, esaterako, amasketa landuz.

• **Zein da masajeak ondo ematearen sekretua?**
Sentsibilitatea, eta masajearen kontzentratuta egotea.

• **Masajeak emateko tresnarik erabiltzen al duzue?**
Ez. Eskuak ezin direla ordezkatu uste dugu. Gainera, esku-ekin emandakoak, efikazagoak direla deritzogu.

• **Zenbat irauten du saio batek?**
Ordubete.

komikia

Hil da, gero...



Eskalearen lurperaketan pentsatzen egon naiz, eta bere diru falta eta aseguru-rik ez daukala kontuan izanik, "combo" a bakarrik eskaini ahal diogu: minimiperra + ongarrizeko estalkia.



Kokoe 078

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI


1932an jaioa

«Irakurketa eta radionobelak»

Gustatzen jata irakurtzia eta, gaiñera, euki naban liburuak irakurtzeko aukeria. Nere tia zineko takilleria zanak asko irakurtzen zaban, eta beti eruatzen zaban takillara libururen bat. Harek nere amari pasatzen ziozen liburuak, eta nik amari hartzen niozen irakurtzeko. Batzuk ezkutuan irakurtzen nitxun. Behin koltxoi azpitan ezkutautu topau naban liburu bat; ordurako nahiko mingarrixa zan, oso gordiña, eta ezkutuan irakurtzen ibiltzen nitzan. Gero rekerdo gogorak geratzen ziran. Nere anaixa ere asko irakurtzekua izan da. Azkenian ikusten dozuna ikasten dozu, eta neri

ere asko gustau izan jata irakurtzia. Eskolan ere igartzen zan: literaturan ateratzen naban notarik onena. Hori betirako geratzen da.

Radionobelak asko gustatzen jakuzen. Jostundegixan josten egoten giñan bittartian entzuten gendun. Telebisioko kulebroi horretakua bezelakua izaten zan, baiña irratixan. Oso interesgarrixa izaten zan. Ahotsa entzunda, igarri eitxen zan jendia zelau zavan, pozik, edo triste, edo enamorauta, edo gaiztua zan. Danok ixil-ixilik radixua entzuten egoten giñan. Eta klaro, gero danok hori komentatzen gendun; ez zan besterik egoten.



[GURE BERBAK]

Kontzesiozko esaldixak (eta 4)

Gaurkua, kontzesiozko esaldixen azken atala. *ERE* lokaillua daukenak aittatuko ditugu. Jakiña da *ERE* horrek askotan laguntzen dabala kontzesio zentzua ematen esaldixeri; horregaittik agertzen da hain sari era honetako esaldixetan. Gaur bi erakuetan jasoko dogu: *-TUTA ERE eta BA- ... ERE*. Lehenbizikua aditz jokatuabiarekin (*hartuta ere*), eta bigarrena jokatuarekin (*hartzen badot ere*). Hona sail bakoitzeko bi-hiru adibide:

Kalian kotxia nun lagarik eztago. Errekauetara junda ere, segittuan daukazu aguazilla txartela egitten.

Nundik batu bihar dira hainbeste milloi etxia erosteko! Bixak lanian egonda ere, urte askotarako kargia da hori!

Ganava gabian soltatzen bada ere, kristaua bezelaxe, zaunka egiñ, eta abixua ematen deu txakurrak.

Idixak penia ematen ditt neri, zergaittik eze, ezin badau ere, oindiok ere akulua kin sakatzen diue, zazta-zazta.

Kanpuan nahi genduana, baiña eskolan ezta barbarik ere euskeraz, eh? Eta dana erderaz. Gero, umiak ohitxu giñan erderaz egitxera, kanpora ertenda ere.

Jesus Mari Makazaga

Gaur, ostirala, 22:15etatik aurrera ...

www.elgoiBARREN.net -en



ARIMA BELTZAren
KONTZERTUA ZUZENEAN

Herriko Antzokira joan ezin duzuenontzat, zuen ordenadoretik mugitu gabe!

«Gure helburu nagusia babesturiko etxebizitzaren ekoizpena areagotzea da»



Etxebizitzaren gaia gori gorian dago. Azken 2 urtetako datuek, etxebizitzaren urteko salneurrien igoerak geldiune txiki bat eduki duen arren, pisuen prezioek altuak izaten jarraitzen dute. Gaian sakontzeko, Javier Madrazo, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburua izan dugu solas lagun.

- Egungo egoerari aurre egiteko zeintzuk dira balizko irtenbideak?

Oinarizko kontu bat, etxebizitza babestuaren eskatzaile izatea da. Horretarako, babesturiko etxeen esleipenera sarbidea eduki ahal izateko zenbait baldintza bete behar dira. Batetik, babesturiko etxebizitza bat erostea nahi baldin badugu, urtean, gutxienez, 9.000 eurotako dirusarrerak eduki behar ditugu eta gehienez, 33.000 eurotakoak. Aldiz, babesturiko alokairuaren aukera egin ezker, gutxienezko dirusarrerak 3.000 eurotakoak diren bitartean, gehienezko muga 21.000 eurotan dago.

- Zeintzuk dira Etxebide ekimenetik dituzuen helburuak 2006-2009 denboraldirako?

Gure helburu nagusia, babesturiko etxebizitzaren ekoizpena areagotzea da. "Plan director" izeneko aurreko egitasmoan, 16.000 etxebizitzaren eraikuntza aurreikusi bagenuen, oraingo honetan, babesturiko 27.000 etxebizitza berri egitea da gure jomuga. Gisa berean, 5.000 bizileku huts mobilizatzea nahi genuke. Ildo beretik jarraituz, gure beste xede garrantzitsu bat, beste 40.000 bizitoki birgaitutzea da. Hau posible izan dadin, etxebizitza horiek eraberritzeko dirulaguntzak ematea gura genuke. Modu berean, udalerrien erabilgarritasunaren alde lan egiteko, finantzaketak handitzea da gure beste xede bat. Iruzuraren aurkako sistema ere, indartu nahi dugu, babesturiko etxebizitzekin inork espekulatu ez dezan. Aipaturiko xedeez gain, eraikuntza jasangarriari arreta bere-



«Babesturiko
etxe alokatuek
geroz
eta pisu
handiagoa
dute»



zia jarri nahi diogu, ingurugiroarekin begirunea izango duten bizitokiak eraikiak izan daitezten. Aldi berean, alokairu soziala bultzatzen dugu.

• **“Bizigune” egitarauaren baitan, zeintzuk dira bizitokia alokairuan jartzen duenaren eta bizi denaren alde on eta txarrak?**

Lehenik eta behin adierazi, alokairuan bi modalitate eskaintzen ditugula: batetik, eraikitzen ditugun etxebizitzak alokairu erregimenean esleitzen ditugu eta bestetik, lehenago erabiliak izandako eta une hauetan hutsik dauden etxeak alokairuan jartzen ditugu. Bizitoki hutsak aipatzen ditugunean, urte osoan inolako okupaziorik ez duten etxebizitzek mintzo gara (uda garaia igarotzeko bigarren pisuak nahiz bigarren bizitokiak kanpoan uzten ditugu). Egun, euskal autonomi erkidegoan, 27.000 inguru izango dira. Guk, etxe jabeei errentamendu kontratua, gobernua-rekin burutu dezatela proposatzen diegu. Gauzak horrela, hileroko kobrantza bermatua izango dute eta etxebizitza egoera onean itzuliko zaie. Maizterrari dagokionez, honi, alokairu babestu bat kobratzen diogu, eta beraz, merkatu askeko alokairua baino zinez merkeagoa da. Etxearen jabeari ordaintzen diogunaren eta maizterrari kobratzen diogunare arteko aldea, gobernuak jartzen du. Aurtengoan, egitaraua finantzatzeko, 14 milioi eurotako

ekarpena burutu dugu. Gutxi gora behera, etxebizitzaren ugazabari, 600 euro inguruko errenta ordaintzen diogu eta maizterrari 240 bat euro kobratzen dizkiogu hilean. Halaber, maizterrek beren dirusarreraren arabera ordaintzen dute. Irizpidea, zera da, hileko ordaintek ez dezatela bere dirusarreraren %30a gainditu.

• **Zeintzuk dira babes ofizial bat eskurtzeko bete beharreko baldintzak?**

Arestian aipaturiko gutxieneko dirusarrerak edukitzea, Euskal Herrian urtebetez erroldatua egotea eta azken bi urteetan jabetzan etxebizitzarik ez eduki izana. Bizitegi hauek kalifikazio iraunkorra dute eta ezingo dira merkatuko bizitegi aske moduan saldu. Babes ofizialeko etxebizitzaren eskubide hori 75 urtetarako da; ondoren, eskubidea berriz luzatu daiteke. Alokairuaren kasuan oster, hiri barmeko errendamentu legeak, 5 urteko epea ezartzen du. Denboraldi hori pasata, bizilagunen egoera ekonomikoa aldatu ez bada, kontratua berritu daiteke.

• **Zenbat etxebizitza daude alokairuan momentu honetan Euskal Autonomi Erkidegoan?**

Alokairuan dauden etxebizitzek geroz eta indar handiagoa dute. Babesturiko etxebizitzaren alokairuen %15eko pisua dute gaur egun eta 2001ean %5a zuten. Gure helburua, 2009. urterako %22a erdiestea litzateke.

• **Zeintzuk dira etxe bat lortzeko erraztasun gehiago eduki behar dituzten sektoreak?**

Nire iritziz, pertsona gazteak. Hain zuzen ere, emantzipazio garaian daudelako eta zailtasun zein oztopo ugariago dituztelako, lan kontratu prekarioak, soldata baxuak... Hauxe gain, guraso bakarreko familiak eta ezgaitasun motaren bat duten norbanakoak. Baita, hainbat urtez Etxebide egitasmoan izena emanak eta babesturiko etxe baten zain aurkitzen diren pertsonak ere. Modu berean, kolektibo zehatzak, esaterako, tratu txarren bat pairatzen duten pertsonak. Batik bat, errenta txikiagoa jasotzen dituzten pertsonak hartzen ditugu kontuan. Dagoeneko, 66.000 norbanakok izena eman dute. Guk 40.000-50.000 etxebizitzaren beharra dagoela hautematen dugu. Oraindik ere, ahalegin handiagoak egin behar dira eta gainerako erakundeen parte hartzea erabakiorra izango da.

• **Lurzoruen lege berriak zer ekarriko du berarekin?**

Hitz urritan: espekulazioak sahiesten lagunduko du. Udaletxeek derrigorrezko lurzoruen proportzio handiagoa erreserbatzeko betebeharra edukiko dute. Lehen ez bezala, egun, 3.000 binzantletik gorako herriek, babes ofizialeko etxeentzat derrigorrezko erreserba egiteko obligazioa izango dute. Urbanizatu daitekeen lurzoruen %75a eta hiri barmeko lurzorua ren %40a.

[PROTAGONISTA]



Jon **Gonzalez**

Jon Gonzalez elgoibartarra 5. postuan sailkatu da Gaztela-Leoneko karting txapelketan. 6 lasterketak osatzen dute txapelketa hau. Elgoibartarrak ez du suerte handirik eduki, izan ere, autoa izorratu zitzaion eta bi lasterketatan ezin izan zuen parte hartu. Autoa konpondu zutenean, bigarren postua lortu zuen Cabañas Raras herrian, eta Villablino lasterketa berak irabazi zuen. Auto telegidatuekin hasi zen eta urte batzuk Rally eta auto igoeretan aritu ostean, karting mundura berratu da azken urteotan Jon Gonzalez. Denboraldi bikaina burutzen ari da.

[NOTIZIA]

Bizikletentzako bide gorria egingo dute Elgoibar eta Maltzaga artean

Gipuzkoako Foru Aldundiak bide gorri bat egiteko asmoa dauka Andikano eta Maltzaga bitartean. Garapen Iraunkorrerako Saitetik adierazi digutenez, eraikuntza proiektua kontratatze fasean dago une honetan, eta 2007an aurreikusten dute lanekin hastea. Elgoibarren egingo duten bide gorri zatia Gipuzkoako bide gorri sarearen baitan kokatzen da.

800.000 euroko aurrekontua

Elgoibar eta Maltzaga arteko bide gorria, eskualdeko proiektuaren baitan egingo den lehenengo fasea da. Datozen urteetan, Eibar eta Soraluzerekin lotzeko asmoa daukate. Bide gorri honek 3 metroko zabalera izango du, Soraluze eta Osintxu



artean dagoenaren antzerakoa izango da. Elgoibar eta Maltzaga arteko lursail gehienak jabetza pribatukoak dira, eta Aldundiaren lehenengo lana horiek eskuratzeari izango da. Proiektu honek 800.000 eurotik gorako aurrekontua izango du.

[ZENBAKIA]

180.000

Eusko Jaurlaritzak 180.000 euro inbertituko ditu Elgoibar eta Mendara artean, Deba ibaia garbitzeko. Deba ibaia Gipuz-

koako kutsatua da. Jaurlaritzako Ingurumen Departamentutik jakinarazi dutenez, 2012. urterako garbitzea aurreikusten da.

asteko [ARGAZKIA]



San Bartolome Parrokiako Osasun Pastoralak antolatuta, Elgoibar, Azpeiti, Azkoiti, Zumaia, Zarautz, Orio, Getaria eta Zestoako gaixo eta ezinduak bildu ziren domekan gure herrian. Guztira 100 lagun inguru elkartu ziren, gaixo, senide eta zaintzaileak kontuan hartuta. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, irribarrerik ez zitzaion falta argazkia ateratzeko unean. Euri tanta batzuk erortzen hasi ziren, eta batzuk aterkia ireki behar izan zuten. Meza Nagusian izan ziren lehenengo eta ondoren, Sigma jatetxean egin zuten bazkaria.

ETB1eko "5 txakur" programan parte hartzen ari dira Sarriugarte familiakoak



Duela pare bat aste hasi zen ETB1ean "5 txakur" izeneko programa, eta bertan, Elgoibarko Sarriugarte familiako kideak ikus ditzakegu. Dagoeneko bi saio eskaini dituzte, eta bihar izango da hirugarrena. Gaueko 21:30ean emittitzen da, esan bezala, ETB1ean. Guztira 8 saioko programa izango da.

5 familia, 5 arrazoi

Txakur abandonatu asko dagoenez, saio honen helburua, txakurrak euskal familietan nola bizi diren eta txakur bat edu-

kitzeak suposatzen duen ardura erakustea da. 5 familia dira programako protagonistak. Lehenengo saioan, Gasteizko txakurte-gira joan ziren txakur baten bila. Familia bakoitzak arrazoi desberdina izan du programan parte hartzeko. Elgoibartarren kasuan arrazoi terapeutikoa izan dela kontatu digute: "txikia zenean txakur batek hagina egin zion gure seme gazteari, Unairi. Orduetik txakurrei beldurra die, eta hori gainditzeko hartu dugu parte programan". Laika txakurra, Joana, Egoitz, Unai eta Juan dira protagonistak, eta oso esperientzia polita izan dela kontatu digute.

[MOTZ-MOTZIAN]

Tanborradako loteria

Elgoibarko Tanborradaren Batzordeak Gabonetako Loteriaren partizipazioak jarri ditu salgai 5 eurotan. 4 euro Loterian jokatzeko eta euro bat tanborradarentzako laguntza izango da. Loteria hau herriko dendetan, tabernetan edota batzordean bertan egongo da salgai. Aurtengo tanborradan parte hartu duten guztientzako partizipazio bana gordeko da, eta hauek Kultur Etxeko sotoan jarriko dira salgai, gaur (20:15-21:15), azaroaren 23an (20:00-21:00) eta 24an (19:00-20:30). Soberan gelditzen diren partizipazioak salgai jarriko dira.

Lan arriskuen prebentziorako ikastaroak

Debegesak antolatuta, azaroaren 25ean hasiko dira lan arriskuen prebentziorako ikastaroak. Goi mailako ikastaroa izango da bata, eta 600 orduko iraupena izango du. Bestalde, espezialitate desberdinak eskainiko dira, segurtasuna, higiena eta ergonomia, esate baterako. Hauek 250 orduko iraupena izango dute. Informazio gehiago 943729282 telefonoan.

Merkatu Plazako zozketa

60 euroko 3 txeke banatu dituzte hilabete honetan Merkatu Plazako dendariak. Agurtzane Andonegi, Juanita Garate eta Valentin Astigarraga izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jasoko dute eta Merkatu Plazan gastatu beharko dute.



Elgoibarko Ezker Batuak egoitza berria dauka



Elgoibarko Ezker Batua-Berdeak alderdi politikoak egoitza berria dauka Errosario kalean. Joan zen ostiralean izan zen inaugurazioa. Elgoibarko alderdikideekin batera, Antton Karrera Gipuzkoako ordezkaria izan zen ekitaldian. Egun berean, bigarren errepublikari buruzko erakusketa inauguratu zuten. 75 urte bete dira aurtien errepublika aldarrikatu zenetik, eta horren aldeko kanpaina egiten ari da Ezker Batua. 100 argazki baino gehiago dituen erakusketa hau astelehenetik ostiralera ikus daiteke, 18:00etatik 20:00etara.

Inkesta

Egin berri den ikerketa baten arabera, euskal herritarren %65ak ez du uste datozen bost urteetan bakea lortuko denik.

Aurrera egingo al du bake prozesuak?

LEIRE LEIARISTI

Ingeniaria
31 urte



“Baietz uste dut, bide onetik doala iruditzen zait. PSOE gobernuan egonda zerbait lortu daiteke, PPrekin ezinezkoa zen. Bakeak luzerako joko du, poliki doa, baina ondo.”

M^a JESUS AROSTEGI

Etxeakoandrea
58 urte



“Apur bat geratu egin dela iruditzen zait, baina egingo du aurrera. Ezin da egun batetik bestera lortu, baina azkenean iritsiko da bakea. Denok nahi dugu hori.”

RAUL FRANCES

Lantegiko teknikoa
32 urte



“Momentuz ETAk bideratu du prozesua, eurek nahi duten bidetik doa eta su-etena apurtzeko arriskua ere bada-go. Hala ere, egunen batean iritsiko da bakea.”

INAZIO MUGERZA

Jubilatua
63 urte



“Derrigorrez egin behar du aurrera, baina luzerako izan-go da. Nire ustez bide onetik doa, ez dut uste su-etena apurtuko denik. Pausoak poliki eman behar dira.”

[BAI ala EZ?]

Heriotza zigorraren aldekoa al zara?

BAI %0

Ez dugu heriotza zigorraren aldeko erantzunik jaso.

EZ %100

“Ez. XXI. mendean hau galdetu beharra ere, gogorra da gero! Gizakiaren bizitzeko eskubidea beste ezerean gainetik dago. Gizarte ustez aurreratua da lege atzerakoenak dauzkana.”

Datorren asterako.... 2012. urterako Deba ibaia garbi egongo dela adierazi du Jaurlaritzak. **Duela 50 urte bezela, izango al dugu Deba ibaian berriz bainatzeko aukerarik?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 ¢ + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talaszelai.com

Elgoibar Ikastolako ikasleak Baratzeko baserri eskolan egon dira



Elgoibar Ikastolako DBH1. mailako ikasleak Baratzeko baserri eskolan izan ziren. Bertan pasa zituzten zenbait egun, eta ekitaldi desberdinak egiteko aukera izan zuten.

Lehenengo egunean Gernikako Bazar Etxea bisitatu zuten. Ondoren, baserri itzuli ziren, elkarbizitza eta harremanak

sendotzeko asmoz. Bertan, tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten: ikuilua, baratza, erlegintza, zaldiak, ogigintza, egurra landu...

Baserriko lanak eta bizimodua ezagutzeko gain, beste herri batzuetako ikasleekin elkarbizitzeko aukera izan dute. Esan digutenez, esperientzia aberasgarria izan da.

[IKAS KONTUAK]

"Behin batean Gabonak" idaz lehiaketa

Gabonak gerturaten ari dira, eta aurtengoan ere, Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak "Behin batean Gabonak" idaz lehiaketa jarri du martxan. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna sortzea eta bultzatzea da lehiaketa honen helburua. 1. eta 2. mailako ikasleek Gabonetako marrazkia egin beharko dute, 3. eta 4. mailakoek Olentzerori idatziko diote gutuna eta azkenik, 5. eta 6. mailakoek "etorkin bat dago gure gelan" gaiaren inguruko ipuin bat idatzi beharko dute.

Lanak jasotzeko epea azaroaren 30ean bukatuko da. Lan guztiak Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Ubiltarten daukan lokalean jasoko dira. Urruzuno Literatur taldeko kideek osatuko dute epaimahaia, eta berriak aukeratuko dituzte lan irabazleak. Sariak Olentzerok banatuko ditu abenduaren 24an Plaza Handian. Informazioa 943741626 (Nagore) telefonoan.

BARREN astekaria eta ELGOIBARREN.NET atari digitala zuzentzeko

ARDURADUNA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Lantalde bat zuzentzeko gaitasuna
- Euskara maila ona.

Baloratuko da:

- Sektorean eskarmentua

Eskaintzen da:

- Urtebeterako lan-kontratua (luzatzeko aukerarekin)

Curriculumak jasotzeko azken eguna: azaroak 20.

E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)



BARHONE JAMAL-EDDINE TETUAN [MAROKO]

«Nire asmoak doktoretza ikasketak egin eta negozioen munduan jarraitzea dira»

DUELA BI URTE IRITSI ZEN ELGOIBARRERA. AITA BEREKETARRA DU ETA AMA FRANTZIARRA. 25 URTEKO MUTIL HONEK INGENIARITZA KIMIKO-KO IKASKETAK EGINAK DITU ETA BOST HIZKUNTZA DAKIZKI: FRANTSESA, GAZTELERA, ARABIARRA, INGELESA ETA EUSKARA PIXKAT. GAUR EGUN, ELGOIBARKO BI LOKALEN

JABE DA. ZAHARREN EGOITZA ETA DUELA BI ASTETATIK LANDA TABERNAKO NAGUSIA DA.



👤 Nolatan etorri zinen Euskal Herrira?

Frantzian, ingeniaritza kimikoko ikasketak bukatu ostean, doktoretza mailako ikasketak burutzea pentsatu nuen. Betidanik, Euskal Herria ezagutzea nahi izan dut eta nire asmoen artean, doktoretza ikasketak hemen egitea zegoen. Horrela, 2004. urteko ekainean, Marokon, emakume elgoibartar bat ezagutu genuen, honek Elgoibarko Zaharren Egoitza eramaten zuen eta aukera paregabea iruditu zitzaidan hona etorri eta hemen lan eginaz diru apur bat aurreztu eta horrela, ikasketak ordaindu ahal izateko.

👤 Zer nolako harrera izan zenuen?

Oso ona. Elgoibarko heritarrak oso atseginak dira eta apur bat ezagutzen zaituztenean, berehala nahi izaten dute zeure berri izan. Alde horretatik, irekiak eta eskuzabalak dira. Hona iritsi nintzenean, ez nekien gaztelarik, baina, pixkanaka eguneroko bizitzan ikasten joan naiz. Euskara ikastea ere gustatuko litzaidake. Azken batean, herri bateko hizkuntza ikastea, integratzeko modurik boberena da.

«Berebearrak eta euskaldunak oso antzekoak dira»

👤 Sortzez nongoa zara?

Jatorriz Tetungoa naiz. Nire aita Berebearra da. Hemengo heritarrak euskaldunen oso antzekoak dira nor-tasunari eta izateko moduari dagokionez. Berbereak antzekotasun ugari ditu euskararekin. Horren adierazgarri, zenbait hitz berdin esan eta esanahi bera dute. Esaterako, "hartu".

👤 Nolako egoera bizi du zure herriak?

Bizi maila hemengoa baino zerbait baxuagoa da. Azken aldian, eraikuntza sektoreko enpresak joan dira, hango esku lana zerbait merkeagoa dela aprobetxatuz. Dena den, binztanlegoaren zati



garrantzitsu batek komertzioan dihardu. Gehienek, Ceutan egiten dute lan: fruta, elikagai, arropa, elektrogailu eta beste hainbat produkturen komertzioan. Horrez gain, turismoa ere badago. Mundu guztiko turistak etortzen dira. Zerbait azpimarratzekotan, hemen, Euskal Herrian, ososun zerbitzuak askoz ere hobekoak direla azaldu nahi nuke. Orohar, ikasketak dituzten pertsonak bizimodua bertan egiten dute. Aldiz, hezkuntzarik gabeko herritarrek, eta familia txiroetakoak direnak, beste herrialdeetara emigratzen dute, batez ere, hegoaldekoek.

👤 **Marokoko zein herrialde gomentatuko zeniguke bisitan joateko?**

Edozein leku da aproposa bisitatzeko. Bat nabarmentzekotan, iaz, aurreneko aldiz ezagutu nuen leku bat aipatuko nuke: Rifeko zonaldea. Duela denbora gutxi arte, zailtasunak zeuden bertaraino iristeko. Oso leku ederra da. Paisaia ikusgarriak ditu: itsaso garbiak, mendiak... Orain arte, oso jende gutxi zapaldu du lurralde hau. Dagoeneko, ordea, jendea hasi da etxeak eraikitzen eta lur zatiak erosten. Gehienak atzeritarak dira: frantziarrak, alemaniarak eta baita, espainiarrak ere.

👤 **Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**

Irakasle izatea gustatuko litzaidake eta horretarako, nire planen artean, doktoretza ikasketak egitea dago. Ikerketaren munduan jardutea ere ondo egongo litzateke eta ahal dela, negozio munduarekin harremanetan segitzea gustatuko litzaidake.

👤 **Tabernari gisa zer deritoxo larunbatetako liskarren gainean?**

Azkenaldian, larunbat arratsaldetan borroka dexente eta txikizio ugari egon

dira. Duela bi aste, esaterako, Zaharren Egoitzako kristalak hautsi zituzten. Honen harira, jendeak dio aspaldian larunbat arratsaldetako jendetza dexente jaitsi dela. Elgoibarren, jende askok egiten du lan ostalaritzan eta egoera hau ez da batere onuragarria herriarentzat. Honenbestez, arazoa errotik konpontzeko neurriak hartu beharko liriteke. Era berean, zera argitu nahi nuke, askotan, tabernarioi leporatzen zaigula, adin txikikoei edari alkoholodunak saldu eta ondorioz, hauek alkohola kontsumitzearen ardurak. Honen inguruan esan, guk ezin dugula egoera erabat kontrolatu, edatea nahi duenak, modu batean edo bestean edaten bukatuko baitu. Aspektu horretan, gaztetxoek gurasoek, arreta gehiago jarri behar dute beren seme alaben jokabideengan.



MAROKO

- **Hiriburua:** Rabat
- **Azalera:** 710.852 km²
- **Biztanleria:** 28.700.000
- **Txanpona:** dirham.
- **Erljioa:** Islama %98a eta sunita konfesiokoak dira.
- **Gobernua:** Monarkia konstituzionala.



GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

Izar Arregi

UDALEKO GAZTEDIA SAILAK NERABEZAROAREN INGURUKO BI HITZALDI ANTOLATU DITU GAZTEEN GURASOEI ZUZENDUTA. AZAROAREN 23AN IZANGO DA LEHENENGOA, ETA BERTAN NERABEZAROAREN EZAUGARRIEI BURUZ HITZ EGINGO DUTE. BIGARREN SAIOAN, HILAREN 30EAN, GAZTEAK ETA DIZIPLINA IZANGO DA GAIA. HITZALDIK KULTUR ETXEAN ESKAINIKO DIRA, 19:00ETAN. IZAR ARREGI PSIKOLOGO AZPEITIARRA IZANGO DA HIZLARIA. GAURKOAN BERAREKIN EGON GARA, BIZITZAKO ETAPA HONI BURUZ BERBA EGITEKO.

“Nerabeak gurasoekin haserretzea ezinbestekoa da”

Bi hitzaldi antolatutuzue nerabezaroaren inguruan. Zein helbururekin?

Herri gehienetan bezala, Elgoibar-ko gurasoek euren seme-alabei diziplina ezartzeko arazoak dituztela esanez deitu zidaten Gaztedia Sailetik, eta nerabeen gurasoak nahiko kezkatuta bizi direla. Honen aurrean pare bat hitzaldi eskainiko ditugu.

Gazteak eta diziplina batera joan al daitezke?

Askotan diziplinari buruz hitz egiten dugunean, ez dugu kontuan hartzen gaztea zein momentutan dagoen edo zein noraezetan aurkitzen den. Diziplinarik ez jartzea arriskutsua da, baina gaztea ulertu eta bere lekuan jarri gabe arauak ezartzea ere bai.

Zein dira nerabezaroaren ezaugarri garantzitsuenak?

Lehenik eta behin aldaketa fisikoa daukagu. Txorakeria dirudi, baina gazte-

arentzat identitate aldaketa suposatzen du. Hau da, mutileri ahotsa aldatzea, bizarria ateratzea edo neskei bularra haztea edo gutxiegi haztea... bi urtetan gorputza izugarri aldatzen da eta horrek eragin handia dauka izakeran, eta autoestimian.

Zein adin tarte hartzen da nerabezaro moduan?

Nerabezaroan bi alor bereiztu behar dira, batetik biologikoa eta bestetik, psikologikoa. Nesketan 12 urtetatik 18 ingurura luzatzen da biologikoa, eta mutiletan 14tik 20ra. Psikologikoa finkatzea zailagoa da. Etapa honetan ikusi behar da norberak nola asumitzen dituen aldaketa fisikoak, eta norbera definitu behar da. Hau da, 8 urtekin mutikoa zara, 35 urterekin heldua, baina 14 urterekin, zer zara? Hemen identitate krisi larriak izaten dira. Zer naiz, zer izan nahi dut eta zer ez... bizitza honetan non gauden jakitea zaila da.

BARREN

Nerabezaroa beti etapa zaila bezala definitzen da. Hala al da?

Identitate aldaketa hori ematen den momentutik, etapa konplikatu bada. Aldaketa guztiek hausnarketa bat eskatzen dute, eta bakoitzak oso desberdin eramango du aurrera.

Norentzat da zailagoa etapa hau gaztearentzat ala gurasoentzat?

Bientzat da zaila. Askotan entzuten dugu gazteak oso ondo bizi direla, baina gainontzeko guztiak bezala, gazte batzuk bakarrik bizi dira ondo, beste batzuk ez dira hain ondo bizi, eta beste batzuk gorabehera handiak dituzte. Denetik dago, eta momentuak daude. Identitate berri horren bila dabiltzan horretan gurasoekin haserretu egin behar du gazteak, hori ezinbestekoa da, bestela ezin du bere lekua bilatu. Hala ere, kontuan eduki behar da gurasoak ere etapa berri baten aurrean egoten direla. Normalean seme-alaben nerabezaroa amaren menopausia etaparekin batera ematen da, eta 50 urte inguru hori oso zaila da gurasoentzat ere. Heldutik zahartzarorako fasea ere zaila da.

Seme-alabak kate motzean lotzeak balio al du ezertarako?

Bi extremo daude. Kate motzean lotzeak ez du batere laguntzen, baina aldi berean, seme-alabak oso libre lagatzeak ere ez. Gazte batek preferente bat behar du. Guraso batek autoritatea erabili egin behar du, derrigorrez. Sinisgarritasuna eduki behar du eta segurtasuna erakutsi behar du, baina ez modu diktatorial batean. Semeak 4 urte dituenean diktadurak balio du, baina 15 dituenean, ez. Hitz egin ezarri behar du autoritatea.

Nola jakin dezake gurasoak seme-alaba ondo hezitzen ari den ala ez?

Seme-alabek erakusten dute hori, guraso batek berehala igartzen du. Argi eduki behar da gauza bat: etxean haserreak eta errietak egotea ez da arazo. Gaizki pasatzen da, baina beharrezkoa da. Aldaketa bat dago, ume izatetik nerabe iza-



“Gaztea zein momentutan dagoen jakin behar da diziplina ezarri aurretik”

tera pasatu da eta hor txokeak egotea ezinbestekoa da. Eskubide batzuk eman behar zaizkio, baina aldi berean, frenoak ipini behar zaie.

Guraso eta seme-alaben arteko konfiantza garrantzitsua al da?

Bai, baina konfiantza ez da gauzak kontatzea. Gazte bat bere identitatea bilatzen ari bada, bere intimitatea eduki behar du, ez da tipikoa dena kontatzea. Porro bat probatu baduzu edo homosexuala bazara, ez daukazu zertan kontatu, gauza horiek norberak pasatu behar ditu. Gurasoak askotan dena jakin nahi dute eta gaztearen kartera miatzen hasten dira. Hori alperrik da. Gazte batek fase horiek pasatu egin behar ditu, kontuan eduki behar da, bere bizitzan nola eragiten duen horrek. Zein lagun dituen, etxean parte hartzen duen, edo beti disgustora dagoen... komunikatzeko modu desberdinak

daude, gurasoa ez da konfidente izan behar.

Egia al da gazteak ez daudela konforme?

Bai, gazte bat ezin da konforme egon. Gizartearen kontra edo irakaslearen kontra egitea normala da. Nire ustez hau aldatzen ari da, gaurko gazteak erosoagoak eta konformistagoak dira. Lehen injustizia guztien aurrean altxatzen ziren. Lehengo guraso autoritarioak permisibo bihurtu dira, eta gazteak dena daukate, ez dute borrokatzen.

Gurasoentzako aholku bat?

Aholkua eskatu dezatela. Ez daitezela arazoak sortu arte zain egon, arazo horiek aurrez ikusi eta ebitatu egin behar dira. Guk hiru astean behin aholkularitza familiarra eskaintzen dugu. Psikologoarengana joan beharrik ez dago, etxean ere bildu eta hitz egin daiteke.

SANTA ZEZILIA EGUNA

Musikaz jantziko da Elgoibar musikarien zaindaria omentzeko

Santa Zezilia, Musikarien Zaindarien Eguna, ospatuko da azaroaren 22an. Hori dela eta, urtero legez, hainbat kontzertu antolatu dira Elgoibarren.

Azaroaren 21ean, Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek bi zatitan banatutako musika emanaldia eskainiko dute. Lehendabiziko zatian, musika hizkuntzaren baitako, 7 urteko ikasleak izango dira protagonista eskolako auditorian, 18:00etan leku izango duen kontzertuan. Ondoren, 18:45ak aldera, trikitariaren eta gazteen bandaren kalejirak emango dio jarraipena, Santa Zezilia bezperako musika ekitaldiei. Bigarren kontzertua iluntzeko 19:30ean, hasiko da eta Musika Eskolako hainbat ikasleren artean, diploma banaketa burutuko da, Musika Eskolako auditorioan azken hau ere.

Santa Zezilia egunean, urteroko ohiturari jarraituz, Ikastolako haurren kalejirak herriko kaleak musika alaiaz jantziko ditu, goizeko 8:30ean Plaza Handitik hasi eta Ikastolan bukatuko den ibilbidean.



Arratsaldean, beriz, Ikastolatik Foruen Plazara arteko kalejira 16:15etik aurrera izango da. Azaroaren 26an, beriz, Elgoibarko Udal Musika Bandak, kalejira egingo du 9:45ean hasita eta ondoren, Santa Zeziliako kontzertua eskainiko du eguerdiko 12:30etan Herriko Antzokian.


Gogorazi, Mendaroko Ameikutz Musika eskolak ere, Santa Zezilia eguna ospa-

tuko duela eta ondorioz, egun horretan ez da klaserik egongo. Azaroaren 20an, 18:30etik aurrera, txistulari eta trikitilariak herriko kaleak girotuko dituzte. Ondoren, 19:00etan, ikasleen emanaldia izango da Kultur Guneko Auditorioan. Bide batez oroitara, azaroaren 27an, Ameikutz Musika eskolaren urteroko bilera orokorra izango dela Musika Eskolan (19:00).

Jostailuen erakusketa

"Atxutxiamaika" taldeak antolatuta, azaroaren 23tik 26ra bitartean, jostailuen erakusketa gidatua egongo da ikusgai Kultur Etxeko sotoan. Erakuspen honen helburua, merkatuan eskaintzen diren euskarazko jostailu ezberdinen berri ematea da, bai guraso, hezitzaile zein haurrei. Ez hori bakarrik, jostailu bakoitzak haurren garapenean betetzen duen funtzioa ere aztertuko da. Haurrek, jostailuekin jolasteko aukera izango dute, beti ere, nagusi batekin etortzen badira. Ordutegia honakoa izango da: ostegunean (16:30-20:00), ostiralean (16:30-18:00), zapatuan (10:00-14:00) eta domekan (11:00-14:00). Era berean, jakinarazi, zapatu goizeko erakusketa, euskal kantuen tailerrari dedikatua egongo dela.

P. M. Urruzunoren bertso bat Oskorriren lan berrian



Oskorri musika taldeak, bere disko berrian, "The Pub Ibiltaria" bildumaren 11. edizioan, Pedro Migel Urruzunok bere egunean konposatu zuen "Sakamantekasen berriak" izeneko abestia bameratuko du. Natxo de Felipe eta bere kideek, abenduaren 21ean grabatuko dute diska hau Bilbon eta zuzenean. Urruzunoren, abesti honetan, Juan Diaz Garayo bortxatzaile eta serie hiltzaile arabarraren atxiloketa eta epaiketaren berri ematen da. Horrez gain, Oskorriren musika lanak, beste 16 abesti bilduko ditu. Jose Vicente Etxegarai, Zaldubi, Tximela edo Ramon Artolaren kantak, besteak beste. Tartean, "Bizi naiz munduan" abesti ezaguna ere jasoko du.

MORKAIKO M.E.

Karakaterako XIII. igoera jokatuko da bihar, zapatua

Morkaiko Mendizale Elkartek eta Urgazi Triatloi taldeak antolatutako bihar Karakaterako igoera ospatuko da. Irteera tokia, Plaza Handia izango da eta ordua, goizeko 11:00ak. Lasterketa honetan parte hartzen dutenek, Plaza Handia eta Karakate arteko 2,5 kilometroak eta 700 metrotako malda, ahalik eta denbora gutxienean egin beharko dute. Horretarako, korrikalari bakoitzak nahi duen bidea aukera dezake. Iazko proban, Mikel Albeniz donostiarra izan zen garaile, 31 minutu eta 5 segundoko denborarekin. Inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte pasa den urteko lasterketan. Guztira, 31 korrikalari eta haue-tatik 14 elgoibartarrak. Biharko probarako, oraindik izena eman ez dutenak eta parte hartu nahi dutenak, egunean bertan, laster-



keta baino lehenago, apuntatu daitezke. Frogaren ondoren, parte hartzaileek Kon-porta elkartearen bazkaria edukiko dute. Era berean, herritarrei Karakatera igotzeko gon-bitea luzatzen zaie korrikalariak animatu di-tzaten, hauek eskertuko baitute.

Athleticek Iban Zubiaurre aurkeztu zuen atzo San Mamesen



Iban Zubiaurre mendarorarik, atzo sinatu zuen San Mamesen, 2014ko ekainaren 30era arte, talde txuri gorriarekin adosatutako kontratua. Profesionalen Futbol Ligak, Iban Zubiaurren lizentzia onartu ostean, hartu du Athleticek jokalaria aurkezteko erabakia. Ligak Realari jakinarazi dionez, Athleticek 5 milioi euroren abala aurkeztu du jadanik, eta ondorioz, jokalariaren fitxa tramitatu ahal izan du. Realaren iritziz, 30 milioiko abala aurkezu beharko lioke Ligari. Auzi honek epaitegietan sortarazitako errekursoak Auzitegi Gorenera iritsi dira dagoeneko.

Euskadiko Hiru Txirlo Bolo Txapelketa Lasturren erabakiko da

Bihar Lasturren Euskadiko XVII. Hiru Txirlo Bolo txapelketako, laugarren eta azken jardunaldia jokatuko da. Momentuz, sailkapen orokorrean, aurreneko postuan, Jose Manuel Perez, aurkitzen da. Elgoibartarrei dagokionez, 4., 5. eta 6. postuetan, Angel Ibarluzea, Javier Osoro eta Xabier Loiola aurkitzen dira, hurrenez hu-

rrer. Hirurak ere, San Migel taldeko partaideak dira. Iaz, Angel Ibarluzea elgoibartarrak, gizonen senior mailan txapelak eskuratu zuen eta Xabier Loiola, berriaz, egungo Gipuzkoako txapelduna da. Lehen hamar sailkatuen artean, apenas dago alderik. Hortaz, lehia bizia espero da Lasturren, 16:30etik aurrera.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi **2** Avenas **1**
Elgoibar **1** - Bergara **1** (erreg.)
Elgoibar **3** - Burumendi **0** (Jub.)
Elgoibar **2** - Eibar **2** (kad.)
Koska **4** - Elgoibar **0** (O. infantil)
Tolosa **4** - Elgoibar **2** (infant. txiki)
Urola **2** - Elgoibar **1** (nesk.)
Elgoibar **0** - Bergara **8** (alebin.)

ESKUBALOA

Romo Indupime **25** Tecnifuelle **22** (Senior mut.)
Lojantzi **19** - Urdaibai **18** (Senior. nesk.)
Aldaketa Zarautz **27** - Pneumax **24** (Jub.mut.)
Cometel **16** - Bera bera **21** (Jub. nesk.)
Aldaketa Zarautz **22** - Tecnomec A **22** (Kad. mut.)
Arrate Amaña **29** - IMH **28** (kad. nesk.)
Aiala C **7** - Olalsa **30** (infant. nesk.)
Aterpe H **9** - Jauja **24** (infant. nesk.)
Txariduna H **19** - Aloña Mendi **22** (infant. mut.)

ARETO FUTBOLA

CD Alegria **3** Kenci **6** (Euskal Liga)
Eraso **7** - Kenci **2** (Gipuzkoa, 2.maila)
Elgoibar **6** - Zarauz **3** (Jub.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Ilunpe **22** Lagunak **19** (Nagusiak)
Lagunak **13** - Tartaloetxe **22** (Jub.)
Lagunak **16** - Oiarpe **22** (kad.)

[AGENDA]

ESKU PILOTA

Ikastolan
Ostirala, **17**
22:15 Lagunak - Eibar (nag.)

ESKUBALOA

Kiroldegian
Zapatua, **18**
17:30 Tecnifuelle - Barakaldo (S. mut.)

ARETO FUTBOLA

Kiroldegian
Zapatua, **18**
16:00 Kenci - Frutas Adarra (Euskal liga)
13:00 Elgoibar - MCM (jub. gipuz.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 10. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena **06/07**

Jokalaria	Puntuak
1. Iker Martinez	11
2. Navarrete	9
3. Amiano	7
4. Arruti	6
5. Morais	5

IGOR ELIZBURU HANDBIKELARIA

«Urtetik urtera denbora hobea egitea lortu dut Behobia-Donostia lasterketan»



Hirugarren aldiz hartu du parte Igor Elizburuk Behobia-Donostia lasterketan, eta aurreko urteetako denbora hobetu du gainera. 1:19:45 denbora egin du eta oso gustura dagoela aitortu digu. Hurrengo meta Donostiako maratonia izango da, hilabete honen bukaeran.

👤 **Zer moduz moldatu zara Behobia-Donostia lasterketan?**

Oso ondo, 1:19:45eko denbora egin dut eta oso pozik nago. Laz baino bi minutu gutxiago behar izan ditut. Aurtan hirugarren aldiz hartu dut parte eta urtetik urtera denbora hobea egin dut. Oraindik oso urduri jartzen naiz, pentsa, txipa jartzea ahaztu zitzaidan!

👤 **Entrenamendu berezirik egiten al duzu Behobiarako?**

Ez. Urte guztian aritzen naiz, azken hilabetean entrenatzeak ez du ezertarako balio. Eguraldiak laguntzen badu, egunero entrenatzea gustatzen zait. San Lorentzora joaten naiz normalean, batzutan Azkaratera igotzen ere animatzen naiz, baina gogorra da. Orain azkar iluntzen duenez, Mintxetan ibiltzen naiz. Askotan etxera joan behar izan dut entrentu gabe. Jendeak Mintxetako sarrean uzten du autoa, eta ezin izaten naiz pistara sartu. Udaltzainei askotan esan diet, baina ez dute ezer egiten. Errespetu piskat eskatu nahiko nuke.

👤 **Zein ezaugarri ditu handbike-ak?**

Bizikleta baten funtzionamendu berdina dauka, baina pedalk hankekin eman beharrean, besoekin ematen dira. Elbarrituentzako bizikleta da, katea, pinoiak, platoa, frenoak... dena dauka. Hori bai, oso garestia da, eta ez digute dirulaguntzarik ematen. Honekin ez nabil gustura, postura txarrean joaten naiz eta

berria erosi behar dut. Erakundeek laguntza gehiago eman beharko litzukete. Estatu mailan oso jendu gutxi dabil modalitate honetan, gehiago erabiltzen da atletismoko aukia. Nik probatu nuen, baina ez zitzaidan gustatu.

👤 **Zer eskaintzen dizu handbikeak?**

Kirola egiteko aukera, eta batez ere, nire kabuz leku desberdinak ezagutzeko aukera eskaini dit. Beste kirol batzuk ere probatu izan ditut, eskia esate baterako, baina horretarako norbaiten laguntza behar nuen. Kirola egitea asko gustatzen zait, eta gainera ondo egiten dit. Konpetizioari ez diot garrantzia handirik ematen. Gustatzen zait lasterketan parte hartzea, eta sariren bat irabazten badut, askoz hobeto!

👤 **Zein lasterketak egin dizu ilusio gehien?**

Duela hiru urte Behobia amaitzeak sekulako ilusioa egin zidan. Behobia berezia da, eta gogorra. Korrikalariarentzat bi aldapa bakarrik ditu, baina guretzat gehiago dira. Jendearen animoek mordo laguntzen dute. Lasterketa guztiak daukate zerbait, eta irabazteak edo denbora ona egiteak asko poztzen nau.

👤 **Zure hurrengo meta?**

Donostiako maratonia hartuko dut parte hilabete honen amaieran. Laz Valentziako maratonia izan nintzen, eta han 2:06ko denbora egin nuen. Hori hobetzea gustatuko litzaidake.

«Donostiako maratonia 2:06 azpitik egitea gustatuko litzaidake»

BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

85 herritar eta 7 mendaroar Behobia-Donostia lasterketan



Aurtengoan 84 elgoibartarrek eta 7 mendarorrek hartu dute parte Behobia-Donostia lasterketa herrikoia 42. edizioan. Gainera, nesken partaidetza aurreko urteetan baino altuagoa izan da; guztira 11 neska elgoibartarrek lortu baitute lasterketa amaiteza. Domeka goiza hotz eta euritsu esnatu zen arren, partaideak ez ziren ohean gelditu. 12.000 lagunek hartu zuten parte, inoiz baino jende gehiago bildu du aurtengoan Behobia-Donostia lasterketak. Errekor guztiak hautsiz, urteik urtera partaide gehiago ditu Behobia-Donostiak. Berrito ere, Jose Antonio Ruiz del Rey izan da herritarrik onena 1:12:56 denborarekin. Nesken artean berriz, Maider Lehr izan zen azkarrena, 1:34:13 denborarekin. Handbike modalitatean, bestalde, Igor Elizburu 1:19:45 denborarekin sailkatu zen.

ELGOIBAR ETA MENDAROAREN SAILKAPENA

Abizenak, Izena	Postua	Denbora			
1. Jose Antonio Ruiz del Rey	145	01:12:56	47. Oier Irazabal Garcandia	6436	01:41:04
2. Xabier Bergaretxe Olabide	180	01:13:52	48. Goiatz Leibar Insausti	6439	01:41:05
3. Asier Arrieta Vallejo	250	01:15:07	49. Alberto Seijas Casado	6438	01:41:05
4. Ibon Gabilondo Altuna	310	01:16:06	50. Gaizka Iglesias Husillos	6449	01:41:06
5. Imanol Rodriguez Iriondo	426	01:17:34	51. Unai Uzkudun Arrieta	6649	01:41:50
6. Asier Orbea Ostolaza	629	01:19:21	52. Imanol Garaizabal Agirregomezkorta	6776	01:42:17
7. Imanol Santos Urain	767	01:20:21	53. Jesus M. Lersundi Larrañaga	6819	01:42:24
8. Igor Dieguez Alberdi	1009	01:21:58	54. Lourdes San Martin Beristain	6941	01:42:49
9. Luis Santamaria Fernandez	1060	01:22:12	55. Tomas Azpeleta Iturricastillo	7088	01:43:19
10. Iñigo Iturbe Ortiz de Zarate	1342	01:23:39	56. Mariano Lopez Rodriguez	7441	01:44:34
11. Danel Fernandez de Jauregi	1388	01:23:52	57. J. Ignacio Ortiz de Urbina	7781	01:45:54
12. Julen Irizar Mantzisor	1497	01:24:23	58. Eneko Agirre Agirregomezkorta	8239	01:47:49
13. Eneko Ramos O. de Etxeberria	1536	01:24:36	59. Gorka Garaizabal Agirregomezkorta	8320	01:48:06
14. Jon Basurto Larrañaga	1736	01:25:36	60. Aitzol Gamendia Konde	8353	01:48:15
15. Zigor Azkoaga Urkiri	1934	01:26:30	61. Maria Jesus Izagirre Izagirre	8566	01:49:03
16. Christian Alonso Lopez	1956	01:26:34	62. Pilar de la Lama Lopez	8574	01:49:04
17. Luis Anakabe Lasa	2279	01:27:38	63. Eduardo Arrendia Azaldegi	8656	01:49:24
18. Breixo Conde Escudero	2380	01:27:59	64. Jorge Elkoroiribe Intxausti	8679	01:49:28
19. Anton Mendizabal Etxaniz	2385	01:28:00	65. Mikel Arzamendi Mujika	9046	01:51:06
20. Aitor Osoro Odriozola	2406	01:28:04	66. Josu Zubiaurre Jauregi	9052	01:51:10
21. Ignacio Perez Alvarez	2499	01:28:21	67. Ana Casquero Gonzalez	9091	01:51:19
22. Sebas Etxaniz Alkorta	2760	01:29:10	68. Ion Ulibarri Mantzisor	9384	01:52:50
23. Imanol Calleja Etxaniz	2823	01:29:25	69. Eider Telletxea Agirre	9425	01:53:00
24. JJose Gurrutxaga San Martin	2937	01:29:51	70. Iñaki San Martin	9487	01:53:23
25. Javier Oñederra Beristain	2948	01:29:54	71. Pedro Santiago Marmol	9522	01:53:32
26. Josu Orbea Ostolaza	3053	01:30:15	72. Amaia Jauregi Barrutia	9622	01:54:07
27. Ibon Villanueva Altuna	3082	01:30:18	73. Amaia Epelde Sanchez	9650	01:54:21
28. Javier Abad Garcia	3413	01:31:25	74. Daniel Rino Avila	9686	01:54:24
29. Arkaitz Iureta Arrieta	3438	01:31:30	75. Tomas Iriondo Astigarraga	9731	01:54:35
30. Raul Carcedo Flores	3734	01:32:22	76. Martin Galarza Berasuetta	9736	01:54:36
31. Modesto Cid Cid	4130	01:33:39	77. Javier Hernando Albert	9833	01:55:07
32. Aitor Comejo Larrañaga	4176	01:33:47	78. Rosendo Fernandez de Camdino	10070	01:56:34
33. Maider Lehr Aranbarri	4304	01:34:13	79. Jon Etxeberria Zulaika	10362	01:58:32
34. Edu Alonso Lopez	4440	01:34:38	80. Asier Lasuen Herrero	10367	01:58:35
35. Jon Peli Uriguen	4640	01:35:38	81. Fernando Bert Arretxea	10980	02:02:54
36. Roberto Aizerreka Etxeberria	4864	01:35:57	82. Richard Roa Roa	11162	02:06:52
37. Sebas Etxaniz	4580	01:36:18	83. Amaia Lariz Irazabal	11537	02:15:38
38. Pilar Arriola Diez	4960	01:34:12	84. Nerea Lariz Irazabal	11539	02:15:39
39. Iker Kanalaetxeberria Laka	4971	01:36:20			
40. Alberto Uzkudun Arrieta	5010	01:36:30	MENDARO		
41. Luis Canseco Cobreros	5465	01:37:58	1. Ion Larrañaga Gorrotxategi	960	01:21:40
42. Mikel Arriola Etxeberria	5475	01:38:00	2. Igor Ezenarro Arriola	974	01:21:45
43. Mikel Elkoroiribe Beristain	5926	01:39:21	3. Iñaki gil Onaindia	4882	01:36:01
44. Joseba Sanchez Garcia	6288	01:40:35	4. Jose Ramon Cabello Olmo	8191	01:47:42
45. Angel Lopez Fariza	6302	01:40:38	5. Mikel Rua Camino	8848	01:50:13
46. Ainhoa Lendinez Garate	6364	01:40:49	6. Roberto Mangana Miguel	8947	01:50:37
			7. Agustin Berasaluze Iriondo	10107	01:56:49

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

† San Frantzisko kalean pisua salgai. 100m². Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. ☎ **607741678**

† Pisua salgai Altzolan. 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea. ☎ **619812448**

† Etxea salgai Erretxindin. Altzariekin, 3 logela, egongela, jan-gela, komuna, 2 terraza eta trastelekua. Eguzkitsua. ☎ **680707639**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea,
komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Bizitzera sartzeko prest.
☎ **943 03 38 44**
☎ **686 62 21 92**

† Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko. www.esnips.com/web/etxepolita helbidean argazkiak. ☎ **660 884060**

ALOKAIRUA

† Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **666032715**

† Pisua alokatzen da Azkoitiin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua. Altzariekin. 500 euro hilean. ☎ **650186229**

† Pisu berria alokatzen da. Igogailua, 2 logela, egongela eta sukaldea. ☎ **655711334**

† Mendaron, Azpilgoetan etxebizitza alokatzen dut. 3 logela, egongela, 2 komun, garajea, trasteroa. Dena kanpora. ☎ **943 013328 (Manoli)**
☎ **650953764 (Ramon)**

[AUTOAK]

† Motorra salgai. Vespa 200.1984. 400 euro. Paperak ondo. ☎ **943741771**

† Opel Kadett 1.6 diesel autoa salgai, motza. 500 euro. ☎ **620135958**

† Kawasaki GPZ-500S motorra salgai. 91koa, ondo zaindua. Margotu berri. Asegurua 2007ko abuztura arte. IVV maiatzera arte. ☎ **616266212**

(15:00etatik aurrera)

† Home Cinema JBL salgai. 5 bozgorailu+subflower. Urte bat, gutxi erabilia. Egurrezkoa, apalekin. Kalitate eta soinu bikaina. ☎ **616266212**

(15:00etatik aurrera)

† Piaggio-Vespa Typhoon 50 RST motorra salgai. 2000. urtekoa. Egoera onean. Garajea lo egiten du. ☎ **943742268**

† Ford Fiesta 1.800 diesel salgai. 600 euro. ☎ **676889260**

† Kawasaki ZX6R Ninja motorra salgai. 3.600 euro. Motor berria, 8.000km. ☎ **690 857510**

† Ford Fiesta autoa salgai. Tuneatua. ☎ **664606102/617491332**

[GARAJE eta LOKALAK]

† Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan. 16m². Itxia. ☎ **615787748**

† Garajea alokatzen da San Roken, Instituto ondoan. Lehengo Antxustegi. 15m². ☎ **616266212**
(15:00etatik aurrera)

† Marradun garajea hartuko nuke alokairuan. hilean 60 euro ordainzko prest. ☎ **655728752**

† Lokala salgai Mendaron, Mendarozabal kalean. ☎ **635733150**

† Lokal txikia alokatzen dut. 18 urtetik gorako neskontzat. ☎ **667838858**

† Garajea alokatzen da San Roke 5ean. ☎ **943 74 11 61**

† Garaje itxia salgai Jausoron. ☎ **686 22 44 38**

[BESTELAKOAK]

† Taberna ederra salgai. Berritua. Negozioa martxa onean. ☎ **607457024/658676609**

† Janari denda bateko altzari guztiak saltzen dira. ☎ **943743420**
(13:00-15:00)

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 ¢ eta alokairua 8 ¢. Autoak 8 ¢. Eta bestelakoak 5 ¢. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Ingeles eta frantses klaseak ematen dira. Natiboa bi hizkuntzatan.

☎ **943743011/605772285**

• Mendaroko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **660674025**

• Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699609190**

• Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. ☎ **666793486**

• Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. ☎ **666793486**

• Neska arduratsua arratsaldetan lan egiteko prest. ☎ **617033906**

• Neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **617056828**

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **639882004**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943172896 (Mertxe)**

• Kamareroa lanerako prest. Esperientziaduna. Euskaraz egiten dut. ☎ **620049420**

• Mutila lanerako prest. ☎ **671289583**

• Mutila lanerako prest. ☎ **667348215**

• Geriatriako erizaintzako laguntzaile euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziaduna, informekak. ☎ **660511781/943742330**

Elena

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **620434550**

• Mutila elektrikari moduan lan egiteko prest. ☎ **638716987**

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **646 821 678 (Lucia)**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **638716987**

• Emakumea lanerako prest. ☎ **943 530130**

• Emakumea fresadora edo egiaztagailuan lan egiteko prest. Ikastararak egiten ditut IMHn. ☎ **639423493**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639423493**

• Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu... ☎ **671167050**

ESKAINNTZA

• Jatetxerako kamarera behar da. ☎ **943 12 73 34**

• Harategian lan egiteko mutila behar da, euskalduna. ☎ **943742048**

• DBHko ikasleak matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak hartuko lituzke. ☎ **943742199**

• Kamareroa behar da. Esperientziaduna. Kontratu eskaintzen da. ☎ **615723480**

ABISUAK

• Ikastola inguruan berokia galdu nuen. Beltza, forro grisa, txanoa dauka. ☎ **943742524**

• Pultsera bat galdu dut Maialen izenarekin. Madala inguruan. ☎ **943740065**

• Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut. Dona Karan markakoak, beltzak. ☎ **699 173635**

• Artzai txakur euskalduna oparitzen dut. 11 hilabetekoa, emea. ☎ **605771996 (Arantza)**

• Elgoibarko gasolindegian telefono mugikorra utzi du norbaitek. ☎ **943 74 43 22**

• Txakurra galdu da Elgoibar inguruan. Hispanier-breton ehiza txakurra. Txuria eta mantxa naranjak ditu. Lur, emea da. ☎ **607843027/652718479**

• Urrezko hartz txiki bat galdu nuen urriaren 17an. Balore sentimental dauka. ☎ **628564011**

• Iriondo Kirolak dendan bakardun kazadora bat utzi du norbaitek. ☎ **943740956**

[ZORIONAK]



‡ Zorionak **Andonil** Zure egunean ondo pasako zenuela espero dugu! Gozatu 9 bonboitoak! Guraso eta Urtziren partez.



‡ Zorionak **Josu** azaroaren 23an 5 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



‡ Zorionak **Nerea** azaroaren 21ean urteak beteko dituzulako. Aner eta laidaren partez.



‡ Zorionak **Amaial** Hilaren 20an 13 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, gurasoen eta bereziki, ahizpa Cristinaren partez.



‡ Zorionak **Telmo** zure 3. urtebetetzean eta 3 mila kilo muxu.



‡ Zorionak **Edume** gaur urteak egin dituzulako. Ahizpa, amama eta gurasoen partez.



‡ Zorionak **Unai**, 19an 6 urte egingo dituzulako. Lehengusu Ion, Axier, Olatz, Aitor, arreba Garazi eta amonaren partez.




‡ Zorionak **Maialen** gaur, 12 urte egin dituzulako. Familiako eta bereziki, Maitaneren partez.



‡ Zorionak **solete!** Maite zaituen jendearen partez. Bihar 5 urte! Isabel, Amaia eta Cristina. Ondo pasa!




‡ Zorionak **Itzigol** familiako guztien partez muxu handi bat, bereziki, Maialen eta Maddiren partez.




‡ Zorionak **Anel** Irigoien familiako partez. Eskutxoa bete duzu!



‡ Zorionak **sorgin politenarri!** Gurasoen partez.



‡ Zorionak **Julen Arregi** azaroaren 21ean 9 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta bereziki, anaia Anderren partez.



‡ Zorionak **Andrea** azaroaren 22an 10 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta etxeko guztien partez.



‡ Hilaren 20an 5 urte egingo dituzulako zorionak **Amaia**, etxeko denon partez eta batez ere, Mirenen partez.



‡ Zorionak **Zorione** eta tio **Bitor!** Hilaren 13an eta 15ean urteak egin zenituztelako. Etxeko eta bereziki, Aitor, Maier, Ainhoa eta Julenen partez.





karkizano
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



Jaika
jatetxea

Menu bereziak 17 €-tik • Karta

Pedro Muguruza, 27 behea - Tel.: 943 74 10 29



[OKINDEGIA]



23 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ
17 Ibañez
18 Bidasolo
19 Bidasolo
20 Etxeberria (*Santa Ana*)
21 Fernandez
22 Yudego
23 Zabaleta
24 Etxeberria (*Errosario*)

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

KANPOKO FARMAZIAK
IBANEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



ESKERTZA

2006ko azaroaren 15ean, 61 urte zituela hil zen **Ramon Etxeberria Zubiaurre**ren sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2006ko azaroaren 11n, 84 urte zituela hil zen **Pedro Bollar Mendiola**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2005eko azaroaren 19an hil zen **Jose Zabala Aramberrin**en oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, azaroak 18, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



[17 BARIXAKUA]

22:00 ZINE-FORUM

"Orgullo y prejuicio"

Dinamizatzailea: Eskarne Larrinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:15 KONTZERTUA

"Arima Beltza"

Herriko Antzokian

22:30 BIDEO EMANALDIA

"Gelditzea badago!" Ipar Italian AHTaren obrak gelditzea lortu duen herri borroka baten kronika. Gaztetxean

[18 ZAPATUA]

11:00 XIII. KARAKATERAKO IGOERA

Iteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

[21 MARTITZENA]

18:00 SANTA ZEZILIA KONTZERTUA, KALEJIRA ETA DIPLOMA BANAKETA

Inazio Bereziartuako Musika Eskolako auditorioan

[22 EGUAZTENA]

8:30 IKASTOLAKO UMEEN SANTA ZEZILIA KALEJIRA

Plaza Handitik Ikastolara

16:15 IKASTOLAKO UMEEN SANTA ZEZILIA KALEJIRA

Ikastolatik Plaza Handira

[23 EGUENA]

16:30 JOSTAILUEN ERAKUSKETA GIDATUA

Hilaren 26ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko sotoan.
Antolatzailea: Atxutxiamaiika

19:00 HITZALDIA

Gaia: Nerabezaroa
Kultur Etxean
Hizlaria: Izar Arregi psikologoa

[24 BARIXAKUA]

18:00 TXAN MAGOA

Herriko Antzokian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«The Guardian»

18, zapatua: 19:30-22:15

19, domekia: 19:30-22:15

20, astelehena: 21:30

«El principe de los ladrones»

19, domekia: 16:30

«La noche de los girasoles» (Z.K.)

23 eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Pequeña Miss Sunshine»

17, barixakua: 19:30-22:15

18, zapatua: 17:00-19:30-22:15

19, domekia: 17:00-19:30-22:15

20, astelehena: 19:30-22:15

21, martitena: 19:30-22:15

22, eguaztana: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Los Borgia»

17, barixakua: 19:30-22:15

18, zapatua: 17:00-19:30-22:15

19, domekia: 17:00-19:30-22:15

20, astelehena: 19:30-22:15

21, martitena: 19:30-22:15

22, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«The Guardian»



Zuzendaria: Andrew Davis

Antzezleak: Kevin Costner, Ashton Kutcher.

Ben Randal (Kevin Costner) igerilari ospetsua izango da ekaitz izugarri baten ondorioz gertatutako istriputik bizirik ateratzen den bakarra. Bere borondatearen kontra A Eskolara bidaliko dute klaseak ematera. Ikasle arrunt batzuk sorosten igerilari bikainak bilakatuko dira berari esker. Benek Jake Fischer (Ashton Kutcher) igeriketa txapelduna ezagutuko du. Bere aurrean daukana igerilari onenatarikoa izan daitekeela konturatuko da.

«La noche de los girasoles» (Z.K.)

Zuzendaria: Jorge Sanchez Cabezudo

Antzezleak: Carmelo Gomez, Judith

Diakhate

Pedro eta Esteban espeleologoak Avilako ingurune menditsu batera iritsiko dira, bertako kobazulo batek interes zientifikorik daukan ikertzeko asmoz. Gabi, Estebanen neskalaguna joango da beraiekin. Hau mendi magalean geratuko da beraien zain. Bi espeleologoak kobazulotik atera eta Gabirengana iristen direnean, neska izututa aurkituko dute.

Atzera hegira



1966. urteko erretratu zahar hau **Imanol Kondek** laga digu. Gipuzkoatik Lourdesera eginiko peregrinazioan ateratako argazkia da. Gaur egun ere, jende asko joaten da Lourdesera, bertako urak gaixotasunak sendatzen dituenaren fama dauka-eta.


Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak.

Ezkerretik eskumara: **Juan Beristain (†)** (parrokoa), **Jose Luis Belloso**, **Telesforo Monzon (†)** (Agirre, Euskal Herriko lehenengo lehendakariaren gobernuakidea izandakoa), **Maria Bengoetxea Isasi-Isasmendi "Txindurri" (†)** (aurten hil da urriaren 5ean 99 urterekin, azaroaren 1ean egingo lituzke 100 urte), **Josefa Isasi-Isasmendi (†)** eta **Maria Isasi-Isasmendi (†)**.



ESKERTZA


2006ko azaroaren 6an, 74 urte zituela hil zen **Jesus Mugerza Gorostiza**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2005eko azaroaren 20an hil zen **Blas Mugerza Iriondo**

“Beti egongo zara gure bihotzean”



khoel

PUBLIZITATE artikulak
IRUDI korporatiboa
ENPRESA opariak



tel. 943 740 271 - 628 359 427 - **ELGOIBAR**
e-posta: khoel@khoel.net - web: www.khoel.net

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorik biziari buruzko 18 urte bete baino lehen ekarri dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 271
JOSU ELLIANDIA

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

Gabi jatetxea



MARIDAJE AFARIA

Azaroaren 24ean gaueko 21:30ean maridaje afari bat ospatuko dugu Gabi jatetxean.

Afari honetaz gozatzeko aurretik erreserbatzea komeni da. Prezioan janaria, edaria eta kafea sartuta dago.

Zatoz !!

Aura



DASTATZEKO MENUA

Porrú-krema (hotz-beroa)

Aura Vendijo ardoa (Rueda jatetxi-deitura)

Escalibada pil-pilean egindako bakailaurarekin

Marques de Villanueva kriadura ardoa (Berriena jatetxi-deitura)

Arroz krematsua ondokoekin reggiano gazta pamesanarekin

Ysios erroseta ardoa (Berriena jatetxi-deitura)

Erbi gisatua ardo beltzarekin

Quinta de Tarsus ardoa (Ribera del Duero jatetxi-deitura)

Eronkariko gazta-moussea meribrilloarekin

Kafea eta edaria

Prezioa: 30 € (beza barne)



Marques de Villanueva

YSIOS



Quinta de Tarsus

Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30

